

Etxean sartzean, lurrera erori zen.



Non erori zen: kanpoan, atean ala barruan?



# Etxean sartzean, lurrera erori zen.

-*TZEAN* moldeko perpaus jokatu gabeak modu zabal batean markatzen du aldibereotasuna, eta horregatik zalantza esaldi batzuetan.

-*TZEAN* forma hautatu da nominalizazio horren aldaera guztiak adierazteko: era*TZEAN*, esa*TEAN*.

Denborazko perpaus jokatuek, aldiz, zehazkiago bereizten dituzte hiru aldaera:

Etxean sartzera zihoanean, lurrera erori zen.

Etxean sartzen (ari) zenean, lurrera erori zen.

Etxean sartu zenean, lurrera erori zen.

- TZERA zihoanean
- TZEN (ari) zenean
- TU zenean

**-TZEAN**

Baina bada jokatugabeetan ere, hizkera batzuetan, hiru adierak bereizteko molderik. Hona:

- TZERA zihoanean > -TZERAKOAN
- TZEN (ari) zenean > -TZEAN
- TU zenean > -TUTAKOAN

-TUTAKOAN forma hautatu da  
'partizipioa + -TAKOAN'  
egituraren aldaera guztiak  
adierazteko:  
harTUTAKOAN, beteTAKOAN,  
edanDAKOAN.

sartzerakoan: sartzera zihoanean

Etxean sartzerakoan, lurrera erori zen.

sartzean: sartzen (ari) zenean

Etxean sartzean, lurrera erori zen.

sartutakoan: sartu zenean

Etxean sartutakoan, lurrera erori zen.

# Beraz:

-*TZEAN* jokatugabeak modu zabalean adierazten du aldiberekotasuna. Euskalki guztietan erabiltzen da. Horixe da molde orokorra.

Halere, hizkera batzuetan, honako aldaera markatu hauek ere erabiltzen dira: -*TZERA KOAN* eta -*TUTA KOAN*.

## Banan-banan ikus ditzagun adibideak:



# -TZEAN

Mendeko perpauseko gertakaria eta perpaus nagusikoa denbora berean gertatzen dira adibideotan:

*...mahaian iartzean etzarela lehenik iarriko,  
etxean sartzean etzarela aitzinean sarthuko,  
edatean eztuzula lehenik edanen.*

Axular, Gero, 1643

Entropioian, hau da, betazalak barrurantz tolestean, betileek lesioak eragin ditzakete kornean.

JIMÉNEZ, Antonio: *Miaketa-gida*. Bilbo: EHU, 2008 (euskaratzailea: Nahikari Gabilondo)



# -TZERAKOAN

Perpaus nagusiko gertakariaren aurretxoko unea markatzeko erabili ohi da -TZERAKOAN moldea:

*Ardiak, ilhuntzerakoan, fitetzago iaten du.  
Zisneak, hiltzerakoan, bere kantua erredoblatzen du.*

Axular, Gero, 1643

*Bolonian sartzerakoan, erori zan orobat  
ustekabeen likistegi edo istingai zikin batera.*

Jose Ignazio Arana, *San Ignazio Loiolakoaren bizitza laburtua*, 1872

*Hiltzerakoan bakarrik aithortu zion hori bere  
semeari.*

Jean Barbier, *Supazter xokoan*, 1924



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



# -TUTAKOAN

Perpaus nagusiko gertakariaren ondorengo unea markatzeko erabiltzen da:

*Atertutakoan, ziztuan abiatuko gara etxera.*

*Zer atsegiña izaten gendun zakura sartutakuan [garia].*

«Uztapide», *Sasoia joan da gero*, 1976

*Kaleru aiek Somorrostrotik burni-meatzaz beterik etorrita, ustutakoan, ondarra artzen zuten.*

Agustin Anabitarte, *Donostia*, 1932

Ez da egokia *-TZERAKOAN* erabiltzea forma orokortzat, hots, bere esanahi zehatz horretatik kanpo.

Ama etortzean hasiko gara bazkaltzen.

\*Ama etortzerakoan hasiko gara bazkaltzen.

Txiletik itzultzean, albiste onak ekarri zituen.

\*Txiletik itzultzerakoan, albiste onak ekarri zituen.

Jendaurrean hitz egitean, ozen eta garbi ahoskatu behar dira hitzak.

\*Jendaurrean hitz egiterakoan, ozen eta garbi ahoskatu behar dira hitzak.

Hasieratik esan dugun moduan, *-TZEAN* da forma orokorra. Beraz, *-TZEAN* erabil daiteke *-TZERAKOAN* erabiltzen den guztietan:

*Zisneak, hiltzerakoan, bere kantua erredoblatzen du.*

*Zisneak, hiltzean...*

Baina, adi!: *-TZEAN* guztiak ezin dira *-TZERAKOAN* moldean eman:

*Hiltzean, akabo niretzat mundua!*

- \* Hiltzerakoan, akabo niretzat mundua!*
- ✓ Hildakoan, akabo niretzat mundua!*

Gehiago jakiteko:

Euskaltzaindiaren Gramatika batzordea: *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-VII*, Euskaltzaindia (prestatze-lanetan).

MUJIKA, Jose Antonio: “-tzean/-tzerakoan (egitean/egiterakoan, jaikitzean/jaikitzerakoan)”, *Jagonet (Galde-erantzunen datu-basea)*.

PETRIRENA, Patxi: *Hamaika zalantza eta hamalau argibide morfosintaxiaren inguruan*. EIMA (argitaratze).